

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: "IGARTZA MUSIKA BEKA" IZENEKO BEKA EMATEKO DEIALDI PUBLIKOA ETA OINARRIAK.

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Beka honen helburua Euskal Herrian kultura sustatzea eta musika hedatzea da, bereziki goi mailako musika-hezkuntzaren esparruan.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

Deialdia Musikenen, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian, Interpretazio espezialitateetan (klasikoa edo jazz) matrikulatuta dauden eta ikasketak egiten ari den edozein adin edo nazionalitateko parte hartzailei dago irekia.

Musikenen Goi Mailako Titulazioaren laugarren urtean eta Interpretazio Masterretan (Orkestra Ikasketen Masterrak, Musika Interpretazio Masterra eta Jazz-Interpretazio Masterra) matrikula egina duten ikasleek izango dute saria jasotzeko aukera, hurrenez hurren.

Bekak helburu dituen ikasketak 2023/2024 ikasturtean egin beharko dira.

Eskatzaileek curriculum labur bat eta programa libre baten egitaraua eman beharko dituzte, gehienez hamabost minutuko iraupeneko. Egitarauak barne hartzen dituen bi obra gutxienez, edo obren mugimenduak, estilo ezberdinetakoak izan beharko dira.

Hala behar duten obrak laguntzaile batekin jo beharko dira, hautagaiek eraman beharko dute.

Bekara aurkezteak oinarriak osotasunean onartzen direla esan nahi du.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Bi motatako sariak izango dira:

- 3.300 €ko beka Master ikasleentzat
- 2.200 €ko beka Goi Mailako ikasleentzat.

4. Eskakerak non eta noiz aurkeztu

Oinarri hauek onartu eta gero BDNS delakoa bidaliko da, ondoren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezen. Halaber, Beasaingo Udalaren webgunean argitaratuko dira eta Musikenera era bidaliko dira beraien web orrian argitaratu ditzaten.

Epea: Eskakerak jasotzeko epemuga 2023ko azaroaren 24a izango da.

Aurkezteko tokia: Eskakerak master@musikene.eus helbidera bidaliko dira Master ikaslea bada eta mgenua@musikene.eus Goi Mailako ikaslea bada. Horretarako oinarri hauetako l. eranskinean azaltzen den eskaera-orria bete eta eskatzen den dokumentazioa atxiki beharko da.

